



A eredua

## IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

# HE1 (B2 maila)

### PROBA IDATZIA

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena. 2) Irakurmena. 3) Idazlan luzea. 4) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu.**

## 1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain, grabazio bat entzungo duzu. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik, galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Gero, galderen erantzuna markatu erantzun-orrian.

### Lehen atala

- 1- Noiz izan zen azoka?**
  - a) Negu-hasieran.
  - b) Gabonetan.
  - c) Negurako hilabete falta zela.
  - d) Udazkenaren hasieran.
  
- 2- Nola zeuden inguruko mendiak?**
  - a) Zurituta.
  - b) Ilun-ilun.
  - c) Behe-laino artean.
  - d) Busti-bustita.
  
- 3- Zer gertatzen da azoka horren ondoren?**
  - a) Loreak ahaztu egin behar dira.
  - b) Lore gehiago saltzen da.
  - c) Loreek salgai jarraitzen dute.
  - d) Loreak desagertzen dira postuetatik.
  
- 4- Non ikus daiteke Sanjose lorea garai honetan?**
  - a) Edozein txokotan.
  - b) Negutegietan eta postuetan.
  - c) Mendi gainean.
  - d) Bide bazterretan.
  
- 5- Nola zeuden lore-postuak?**
  - a) Udaberrian baino ikusgarriago.
  - b) Guzti-guztiak nahasita.
  - c) Eskaintza handirik ez zegoen.
  - d) Benetan polit, kontrasteari esker.

### Bigarren atala

- 6- Noiz saltzen da arkume gehien?**
  - a) Udazkenean.
  - b) Sanjosean.
  - c) Gabonetan.
  - d) Urte osoan.
  
- 7- Zein da arkumeak saltzeko bidea?**
  - a) Gehienak, ferian.
  - b) Hainbat modu daude.
  - c) Gehienak, enkantean.
  - d) Gabonetan, harategian.
  
- 8- Zer diote arkumeen prezioaz?**
  - a) Gorabeherak izaten dituela.
  - b) Prezioa finko samarra dela.
  - c) Inork ez duela kontrolatzen.
  - d) Azaroan merkatu egiten dela.
  
- 9- Esatariaren arabera, azokan...**
  - a) ez dago onddorik.
  - b) sasoiko barazkiak besterik ez dago.
  - c) zapore gozoak falta dira.
  - d) produktu berriak daude.
  
- 10- Zer diote azokako postu bereziet?**
  - a) Erdian kokatzen direla.
  - b) Oraindik ez direla jarri.
  - c) Eskaintza berria hasi dutela.
  - d) Aukera gutxi dagoela.

## 2. IRAKURMENA

### Hernioko erromeria

Goizeko hamarretan abiatu gara Erreziletik gora, hormigoizko pistan barrena, eta ordubetea ailegatu gara Zelatuneko lepora. Goiz da oraindik eta trikitilariak ez dira jotzen hasi, baina bai ekitaldia prestatzen: mikrofonak jarri tranpaldoan, bafleak zutitu, Zero Sette soinua probatu... Garai batean bi eta hiru trikitilari bikote ere aritzen ziren batera erromeria honetan, mikrofonoak eta bozgorailuak erabiltzen hasi aurretik, baina gaur egun bikote bakarrak jotzen du eta haren doinuak eremu osora zabaltzen dira.

Xabier Alberdi 'Zabale' soinu-jotzailea eta Angel Larrañaga pandero-jotzailea arituko dira (...11...). Gazteagoa den arren, 'Zabale'k eskarmentu handiagoa du Hernioko erromerian, hogeitau urte baitaramatza hemen (...12...); Larrañaga duela hamabost bat hasi zen. Dena prest eduki dutenean –eta kazetariak bakean utzi dituenen–, tabernarako (...13...) hartu dute, salda hartzera, fresko egiten baitu Zelatunen. Euria ere ez dugu urruti izango.

Poliki-poliki, ari da (...14...) hurreritzen. Batzuk Asteasu aldetik datoz, beste batzuk Bidanitik, Erreziletik ere bai zenbait. Hernioko gailurreraino segitzen duenik bada, beherakoan (...15...) geratzeko asmoz. Bi taberna daude irekita, bakoitza txabola batean, eta ez zaie bezerorik falta. Erroskila (...16...) jarri du postua, plastikoz babestua, baita Kilometroetako arropa saltzen duten tolosarrek ere. Erroskilazaleak ikurrinaren koloreko zintak ere eskaintzen ditu. Francoren garaian, aldarrikapen-kutsu handia zeukan mendiko erromeria hauetan zinta (...17...) janzteak.

Hasi da trikiti-soinua. Eguraldiak ez du askorik (...18...) eta giroa hotza dago bildutakoen artean, baina pieza pare baten ondoren dozena-erdi bat lagun (...19...) dira dantzara. Berehala osatu da dozena. Gehiagok ere egingo lukete, baina gu (...20...) ikusteak atzeratu egiten ditu nabarmen. Kamara gorde eta batzuekin eta besteekin hitz egiten hasi gara, (...21...) munduaz galdezka. Hitz egiteko eran nabari da Tolosaldeko, Goierriko eta Urola bailarako jendea biltzen dela hemen gehien.

Resurrecion Balerdi bedaioarra izango da Euskal Herriko erromeriazalerik (...22...). 69 urte ditu, baina sasoi betean dago. Jertsea bizkarretik, txapela (...23...) eta maoizko prakak, dantzara sartzeko prest dago. Oso gazterik, dozena bat urte edo (...24...) , hasi omen zen Bedaioko eta inguruko herrietako jaietan dantzan, eta ordudanik ez da gelditu. Bizpahiru orduko saioak (...25...) eragozpenik ez dauka, nola soltean hala lotuta. Zumarragako Antiguako erromerian ere (...26...) izan dugu, Santa Isabel jaietan, gazteagoak lehertu eta bera aurrera, neke-itxurarik gabe. «Berezkoa dut nik sasoi hau» dio barrez. Juan Iturria billabonatarra ere (...27...) ez da dagoeneko, baina hemen da gaur; gutxitan huts egin omen du Zelatunen joandako 50 urtean. Hamaietakoia egiten ari da, dantzak geroagorako utzita.

Larrañagak eta 'Zabale'k (...28...) luketen baino gazte gutxiago ari da dantzan zelaian. Duela dozena bat urte inguru pizturaldia izan zuen trikitiak, Maixa eta Itziar, Gozategi... horien (...29...) , baina boom hura apaldu egin da, eta soinu-jotzaile eta pandero-jotzaile «klasikoek» jarraitzen dute erromeriak alaitzen. «Bai, jende igualtsua ibiltzen da erromerietan. Ez da (...30...) gazteak erakartzea» diosku Angelek. Begi bistakoa da gizartea asko aldatu dela erromerien urrezko garaietatik, eta duela 50-40 urteko Euskal Herriko aisialdia –eta harremanetan jartzeko erak– eta (...31...) ez direla berdinak. Dantza soltea eta lotua dira adibide garbia: garai (...32...) Elizak debekatuta eta gizarteak gaizki ikusita zegoen neska-mutilek «agarrao» dantza egitea, eta erromeriak ziren, (...33...) erromeriak hain zuzen, neska-mutilak lotzeko aukera aparta. Zenbat bikote ez ote ziren osatu eta neska-laguntze egin Zelatunen, Urkiolan, Iturriotzen edo Kizkitzan. Gaurko gazteei esan behar, whatsapp-aren garaian...

Fandangoak, arin-arinak eta zortzikoak bata bestearen atzetik aineratzen dira Zelatunen. Bazkaldu ondoren, (...34...) ondo beteta, dantzarako gogo handiagoa antzematen zaiei hemen bildutakoei. Hankak eta besoak (...35...) dituztenak gero eta gehiago dira, baina erromeriazale gehien iraileko azken igandean bilduko da, ohiko moduan. Horien artean ez dira faltako hainbat herritan ematen ari diren dantza-ikastaroetako (...36...). Bat aipatzekotan, Aiko taldearena nabarmendu daiteke. 2008an hasi ziren ikastaroak eskaintzen, eta 2012-2013 (...37...) 500 ikasle baino gehiago izan dituzte Bilbo, Donostia, Sopela, Gernika, Galdakao, Zarautz eta Durangoko ikastaroetan.

# A eredia

Zein diren gaur egungo erromeria indartsuenak Euskal Herrian? Bada, Zelatungo honetaz –hobeto esanda– hauetaz (...38...) , Urbiakoa, Oletakoa, Kizkitzakoa, Iturriozkoa, Oikiakoa, Azkoitiko Urrategikoa, Olarizukoa Araban... eta beharbada famatuena, Urkiolakoa Bizkaian. Mutrikun eta Lekeition, esaterako, berrindartzen ari da erromeria giroa, udaberrian antolatutako Euskal Erromeria Egunak ekitaldian ikusi dugunez. Ordizian ere aurten (...39...) dute Oianguko erromeria. Aiako Aristerrazukoa ere indartsua da, eta igandero egiten da. Joan den ekainean saio berezia izan zen Aristerrazun, eta trikitilari bikote edo talde mordoia igo zen oholtzara, horien artean Izer eta Alabier, Laja eta Mikel, Tapia eta Leturia, Kupela taldea, Elizagoien ahizpak, Asteasuko Astiazaran anai-arrebak... Alegia, gaur egunean erromeria munduan punta-puntan dabilten soinu-jotzaile eta pandero-jotzaileak.

Trikitilariak ez dira falta, ez, eta inoizko onenak, seguru asko, teknika aldetik. (...40...) behar dira ugariago, dantzariak, gure auzo eta mendietan fandangoak eta arin-arinak dantzatuko dituztenak, erromeriek bizirik jarrai dezaten urte askoz.

Gotzon Aranburu, Euskal Herria sakonean, naiz, (moldatua)

11) a) lehian b) trikitilari c) bizkor d) goizean	12) a) jotzen b) lanean c) gogoz d) erakusten	13) a) lekua b) ildoa c) keinua d) bidea	14) a) jendea b) multzoa c) laguna d) mendizalea
15) a) txabolan b) erromerian c) pozik d) hizketan	16) a) garraiolariak b) eramaileak c) saltzaileak d) egileak	17) a) horixe b) hauek c) izenekoak d) horiek	18) a) behar b) laguntzen c) hobetzen d) agintzen
19) a) irten b) hasi c) jarri d) altxa	20) a) begira b) lasai c) grabatzen d) parrez	21) a) dantzarien b) zuhaitzen c) ohituren d) erromerien	22) a) baldarrena b) handiena c) gustukoena d) lasaiena
23) a) buruan b) tente c) besapean d) zeharka	24) a) gainean b) zituela c) gehiagotan d) pasa	25) a) kantatzeko b) entzuteko c) egiteko d) laguntzeko	26) a) atzeman b) ikusi c) entzun d) ohartu
27) a) adinekoa b) gaztea c) iaioa d) hiztuna	28) a) nahiko b) behar c) esango d) hartuko	29) a) atzetik b) mailan c) gogoko d) eskutik	30) a) itxura b) jakina c) erraza d) jolasa
31) a) gizartea b) oraingoa c) musika d) ordukoa	32) a) batean b) ilunetan c) jakinetan d) zailetan	33) a) urrutiko b) hurbileko c) euskal d) mendiko	34) a) galtzak b) sabela c) sakela d) asmoa
35) a) luzatzen b) kontatzen c) astintzen d) biltzen	36) a) ikasleak b) oihartzunak c) irakasleak d) dantzariak	37) a) garaian b) urtean c) amaituta d) hasteko	38) a) harago b) jarraian c) aipatu d) gain
39) a) utzi b) pentsatu c) berreskuratu d) bultzatu	40) a) Dultzaineroak b) Dantzariak c) Animoak d) Entzuleak		



# A ereduia

30.....

40.....

50.....

60.....



## ERANTZUN ZUZENAK

### HE1: Ahozkoaren Ulermena (Ordiziko feria)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
C	A	C	B	D	C	B	A	D	C

### HE1: Irakurmena (Hernioko erromeria)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	A	D	A	B	C	D	B	A	C
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
D	B	A	B	C	B	B	A	D	C
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
B	A	D	B	C	A	B	D	C	B